ABANTO-ZIERBENAKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, **"ABANTO-ZIERBENA UDAL MUGARTEAN ABIADURA MURRIZTAILEAK EGIKARITU ETA BIDEAK EGOKITZEKO PROIEKTUA"** DELAKOAN BARNE HARTUTAKO OBRAK EGIKARITU ETA FINANTZATZEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ABANTO ZIERBENA Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL **"PROYECTO DE ADECUACIÓN DE VIALES Y EJECUCIÓN DE REDUCTORES DE VELOCIDAD EN EL T.M. DE ABANTO ZIERBENA"**

Bilbon, 2019ko otsailaren 21an

En Bilbao, a 21 de febrero de 2019

## BATU DIRA

**MAITE ETXEBARRIA AZPIOLEA andrea, Abanto-Zierbenako Udaleko alkate udalburua, 2015eko ekainaren 13an Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera jardun dena.**

**KEPA ODRIOZOLA AZULA jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2017ko ekainaren 27ko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.**

## REUNIDOS

**Dña. MAITE ETXEBARRIA AZPIOLEA, Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Abanto Zierbena, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 13 de junio de 2015.**

**D. KEPA ODRIOZOLA AZULA, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 29 de enero de 2019**

## ESKU HARTU DUTE

Esku-hartzaileek euren erakundeetako presidente eta ordezkari gisa esku hartzen dute. LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

## INTERVIENEN

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

## ADIERAZI DUTE

**LEHENENGOA.**
Abanto-Zierbenako Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen

## EXPONEN

**PRIMERO.**
Que el Ayuntamiento de Abanto Zierbena, de acuerdo con la Ley 7/1985, de 2 de abril,

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluarekin bat etorriz, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauen jarduteko eskumenak ditu (...) d) Bide azpiegitura eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk.

Reguladora de las Bases del Régimen Local, art 25 tiene competencia para ejercer en todo caso como competencias propias, en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas, en las siguientes materias (...) d) Infraestructura viaria y otros equipamientos de su titularidad.

Abanto-Zierbenako Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluarekin bat etorriz, eskumen propioa balia dezake arlo hauetan: (...) 3) Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.(...) 16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.

Que el Ayuntamiento de Abanto Zierbena, de acuerdo con la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en el artículo 17 puede ejercer como competencia propia en los ámbitos de: (...) 3) Ordenación y gestión del uso de servicios, equipamientos, infraestructuras e instalaciones de titularidad pública.(...) 16) Ordenación, gestión y prestación del servicio de alumbrado público, limpieza viaria, acceso a núcleos de población y pavimentación de vías urbanas, así como parques y jardines.

**BIGARRENA.**
Partzuergoaren funtsezko misioa da ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea lurralde-eremua osatzen duten udalerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Horien azken aldaketa 2014ko azaroaren 5eko Batzar Nagusiak onetsi zuen.

**SEGUNDO.**
Que el Consorcio tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 5 de noviembre de 2014.

**HIRUGARRENA.**
Gaur egun, Partzuergoak saneamenduko lehen mailako sarearen zerbitzua ematen du; Udala, aldiz, bigarren mailako sarearen edo udal-estolderiaren arduraduna da.

**TERCERO.**
Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Abastecimiento y Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria de saneamiento.

**LAUGARRENA.**
Partzuergoa "Enkarterri eskualdean lehen mailako sarean ura hornitzea, I. Tartea Las Carreras – El Arenao" obrak egiten ari da; obra horren hodiak Abanto-Zierbena udal mugarteko udal bideen azpitik doaz zati batean, adibidez Barcenan, N-634 errepide azpian, Putxeta auzoa, Cotorrio auzoa.

"Enkarterri eskualdean lehen mailako sarean ura hornitzea, I. Tartea Las Carreras – El Arenao" obretara iristeko zenbait udal bide

**CUARTO.**
Que el Consorcio se encuentra realizando las obras de "Suministro de agua en Red Primaria a la Comarca de las Encartaciones, Tramo I – Las Carreras – El Arenao", cuyas conducciones discurren en parte bajo viales municipales del T.M. de Abanto y Zierbena, como son vial en la Bárcena, paso bajo la N-634, Bº Putxeta, Bº Cotorrio.

Que para acceder a las obras de "Suministro de agua en Red Primaria a la Comarca de las

erabili dira, eta aurreikusi gabeko trafiko bolumenak eragin dira bide horietan; horrenbestez, obra egikaritzeko tarteekin bat ez datozen puntuetan eragina izan du.

Aurreko obretan ez zen jaso benetan egindako sarbideetan bideak birjartzea.

**BOSGARRENA**

Abanto-Zierbenako Udalak, dagozkion eskumenak baliatuz, udalerriko bideetan esku hartzeko interesa dauka, faseka egingo den programa baten barruan, zoladura egokitzeko eta bidezaintza hobetzeko; hala, abiadura kontrolatzeko elementuak ezarriko dira, hain zuzen ere mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak (RVLA), gaur egun dauden plastikozko badenak ordeztuz, ez baitaude egoera onean.

**SEIGARRENA**

Partzuergoak sustatutako obraren eta aipatu bezala bideak narriatzearen ondorioz lotura dago.

Abanto-Zierbenako Udalak mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak (RVLA) jartzeko asmoa daukala, besteak beste, La Bárcenako bideetan, N-634 errepidearen azpiko igarobidean, Putxeta auzoan eta Cotorrio auzoan; hala, udal bideetan abiadura egokitu egingo da eta zoladura hobetu egingo da.

Bi jarduketak bide berberetan egikaritu behar direnez, modu independentean eginez gero lanak modu okerragoan egikarituko lirateke, eta obraren bolumena handiagoa izango litzateke.
Horregatik guztiagatik, honako hau erabaki da:

"Enkarterri eskualdean lehen mailako sarean ura hornitzea, I. Tartea Las Carreras – El Arenao" obra egiteari lotuta ibilgailuak igarotzearen ondorioz kaltetutako bide

Encartaciones, Tramo I – Las Carreras – El Arenao", se ha transitado por viales municipales, generando en los mismos volumenes de trafico no previstos, por lo que se ha afectado a estos en puntos que no se corresponden con tramos de ejecución de obra.

Que las obras anteriores no recogian la reposición de los viales en los accesos realmente realizados..

**QUINTA**

Que el Ayuntamietno de abanto Zierbena, en ejercicio de sus competencias, tiene interes en actuar en los viales del municipio dentro de un programa de fases, en el que se programa readecuar el pavimento asi como mejorar la vialidad disponindo elementos de control de la velocidad "RVLA – reductor de Velocidad Lomo de Asno que sustituyan a diversos badenes plásticos existentes y que se encuentran en un estado no idóneo.

**SEXTA**

Que existe vinculación entre la obra promovida por el Consorcio y el deterioro de los viales indicado.

Que el ayuntamiento de Abanto Zierbena tiene intención de disponer dicho RVLA, entre otros, en los viales de La Bárcena, paso bajo la N-634, Bº Putxeta y Bº Cotorrio mejorando la pavimentación y adecuando la velocidad en los viales municiaples.

Que considerando que ambas actuaciones se realizan sobre los mismos viales la ejecución de cada una de ellas por independinete tendría como resultado una peor ejecución de los trabajos así como un mayor volumen de obra.
Por todo lo anterior se acuerda que:

El Consorcio asumirá la restitución de la parte dañada de la pavimentación en los tramos de viales dañados por el paso de vehiculos relacionados con las obras de "Suministro de

tarteetan kaltetutako zoladura zatia ordezteaz Partzuergoa arduratuko da, Mª Auxiliadora, Putxeta eta Cotorrio auzoetako bideetan.

agua en Red Primaria a la Comarca de las Encartaciones, Tramo I – Las Carreras – El Arenao", viales en Mª Auxiliadora, Bº Putxeta y Bº Cotorrio.

Aurreko obrek kaltetutako bide tarteetan abiadura egokitu eta hobetzeko instalazioak jartzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hartuko du bere gain.

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia asumirá ejecutar las instalciones para mejorar la adecuación de la velocidad en los tramos de vial afectados por las obras anteriores

Abanto-Zierbenako Udalak udal mugarteko gainerako jarduketak hartuko ditu bere gain.

El Ayuntamiento de Abanto y Zierbena asumirá las actuaciones restantes en el resto del T.M.

**ZAZPIGARRENA**

Abanto-Zierbenako Udaleko ofizioa jaso ondoren (BBUP erregistroko zenbakia: 2375), deskribatutako bideetan gertatutako gabeziei buruzkoa, Partzuergoko Zerbitzu Teknikoek " **ABANTO-ZIERBENA UDAL MUGARTEAN ABIADURA MURRIZTAILEAK EGIKARITU ETA BIDEAK EGOKITZEKO PROIEKTUA"** idazten ari da; proiektu horren kontrata bidezko **aurrekontua, gutxi gorabehera, 287.202,94 EUROKOA** izango da, BEZa barne, eta egikaritzeko epea **3 hilabetekoa izango da**.

Hemen agertu diren aldeek badute proiektu horren edukiaren berri, egoera txarrean dauden bide tarteak egokitzeko obrak definitzen dira bertan, udalerriko hainbat lekutan daudenak, baita mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak (RVLA) jartzea ere, gaur egun dauden plastikozko baden batzuen ordez, ez baitaude egoera onean.

**SEPTIMA.**

Que los Servicios Técnicos del Consorcio, tras recepción de oficio del ayuntamiento de Abanto Zierbena (Num. Registro CABB 2375) relacionado con las deficiencias acaecidas en los viales descritos están redactando el **"PROYECTO DE ADECUACIÓN DE VIALES Y EJECUCIÓN DE REDUCTORES DE VELOCIDAD EN EL T.M. DE ABANTO ZIERBENA"**, cuyo **Presupuesto aproximado** de Ejecución por Contrata, IVA incluido, será de **287.202,94 EUROS** y un plazo de ejecución de **3 meses**.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto en el que se definen las obras para la readecuación de tramos de viales en mal estado, distribuidos en diferentes zonas del municipio, así como la ejecución de reductores de velocidad "lomos de asno" (RVLA), en sustitución de algunos badenes de plástico que existen actualmente y se encuentran en mal estado.

**ZORTZIGARRENA**

"Abanto-Zierbena udal mugartean abiadura murriztaileak egikaritu eta bideak egokitzeko proiektua" proiektuan definitutako obrak gauzatzeko interes handia daukate bi erakundeek, udal bideek gaur egun duten egoera nabarmen egokitu eta hobetzeko.

**OCTAVA.**

Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "Proyecto de adecuación de viales y ejecución de reductores de velocidad en el T.M. de Abanto y Zierbena", a fin de adecuar y mejorar considerablemente la situación actual de viales municipales.

**BEDERATZIGARRENA**
Ondorio horietarako, Abanto-Zierbenako Udalak, proiektua lizitatu baino lehen, proiektuko lanek ukitutako eskubide eta ondasunak eskuratzeko beharrezkoak diren izapideak hasiko ditu.

**NOVENA.**
Que a tales efectos el ayuntamiento de Abanto Zierbena, previamente a la licitación del Proyecto iniciará los trámites necesarios para la obtención de los bienes y derechos afectados por las obras del Proyecto.

**HAMARGARRENA**
Administrazio Publikoen arteko harremanetan bete beharreko lankidetza-printzipioa kontuan hartuta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoa dela bide.

**DECIMA.**
Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 141.1.d de la Ley 40/2015 de regimen Juridico del Sector Público.

Esku-hartzaileek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDE DIREN LANAK**
Hitzarmen honek hizpide dituen obrak "Abanto-Zierbena udal mugartean abiadura murriztaileak egikaritu eta bideak egokitzeko proiektua" izeneko proiektuan jasotakoak dira; kontrata bidezko aurrekontua, gutxi gorabehera, **287.202,94 EUROKOA** da, BEZ barne, eta egikaritzeko epea **3 hilabetekoa da**.

Proiektu horretan aurreikusitako jarduketak, oro har, egoera txarrean dauden zenbait bide egokitu eta hobetzeko jarduketak dira, baita gaur egun udalerrian dauden zenbait baden ordeztea ere, ez baitaude ondo, eta, horien ordez, mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak (RVLA) jartzea. Seinale horizontaletan ere eragina dagoen zonetan, berriak jarriko dira.

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**

Las obras objeto del Convenio son las correspondientes al denominado "Proyecto de adecuación de viales y ejecución de reductores de velocidad en el T.M. de Abanto y Zierbena", que alcanzan un Presupuesto aproximado de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **287.202,94 EUROS** y un plazo de ejecución de **3 meses**.

Las actuaciones incluidas en dicho Proyecto son, principalmente mejorar y readecuar algunos viales en mal estado, así como sustituir algunos badenes con los que cuenta actualmente el Municipio, que se encuentran deteriorados y ejecutar en sustitución, reductores de velocidad tipo "lomos de asno" (RVLA). En las zonas que se afecte a la señalización horizontal existente, también se repondrá.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**
Obra horri dagokion proiektu teknikoa Ur Partzuergoa idazten ari da, udalak hala eskatuta, eta Abanto-Zierbenako Udaleko zerbitzu teknikoek berrikusi egingo dute; hala badagokio, proiektu horri adostasun teknikoa emango diote.

Kasuan kasuko proiektu teknikoa Ur Partzuergoak idatziko du, eta Partzuergoak berak ordainduko ditu hori idaztetik eratorritako kostu guztiak.

Abanto-Zierbenako Udalak proiektu hori onartuko du, eta oinarri gisa erabiliko da obrak kontratatu eta egikaritzeko.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**
El Proyecto técnico correspondiente esta siendo redactado por el Consorcio de Aguas a solicitud municipal y que los Servicios técnicos del Ayuntamiento de Abanto Zierbena revisarán y, si procede, otorgarán el conforme técnico a dicho proyecto.

Que el Proyecto Técnico correspondiente será redactado por el Consorcio de Aguas, satisfaciendo este en su totalidad los costes derivados de su redacción.

Que el Ayuntamiento de Abanto Zierbena aprobará dicho proyecto, que servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

**HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA**
Abanto-Zierbenako Udalak hitzarmen honen xede diren obrak egoki egikaritzeko beharrezkoak diren lurzoruen erabilgarritasuna eta baimenak eskuratzeko konpromisoa hartzen du.
Ur Partzuergoak hitzarmen hau sinatzearekin batera Abanto-Zierbenako Udalari ahalmena ematen dio bere izenean lanak egikaritzeko behar adina eskari, baimen, eskabide eta izapide egiteko erakunde egokiei.

**TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO**
El Ayuntamiento de Abanto Zierbena se compromete a la obtención de las autorizaciones y disponibilidad de terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.
El Consorcio de Aguas faculta mediante la suscripción del presente Convenio que el Ayuntamiento de Abanto Zierbena pueda realizar en su nombre cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

**LAUGARRENA.- LANEN KONTRATAZIOA**
Obren kontratazio-organoa Abanto-Zierbenako Udalaren baitan ahalmen hori daukana izango da.
Horrenbestez, organo horrek kontratazio-prozedura osorik izapidetzeko betebeharra izango du, bere dituen ahalmenen eta erregimenaren arabera.
Hori guztia dela eta, Abanto-Zierbenako Udalari dagokio obrak adjudikatzea, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta, eta Ur Partzuergoari horren berri ematea.

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**
El órgano de contratación de las obras será el que tal potestad ostente en el Ayuntamiento de Abanto Zierbena.
En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.
Por todo ello, corresponderá al Ayuntamiento de Abanto Zierbena la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma al Consorcio de Aguas.

**BOSGARRENA.- LANEN ZUZENDARITZA**
Behin lanak kontratatu eta beharrezko baimen guztiak eskuratu ostean, Abanto-Zierbenako Udaleko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**
Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Ayuntamiento de Abanto Zierbena.

**SEIGARRENA.- LANEN ETA LURZORUAREN KUDEAKETAREN FINANTZAKETA**

Obren finantzaketa partekatua izango da, funtzionalitatearen arabera; Abanto Zierbenako Udalaren kontura izango dira Las Carreras, Gallarta, Cotorrio-Putxeta, Sanfuentes, Triano - Las Calizas ingurukoak; Ur Partzuergoari dagozkio, bestalde, bideen zorua egokitzeko lanak María Auxiliadora - Las Carreras, Cotorrio-Putxeta auzoetan, eta Galdamesa bide berdea La Balastera tartean. Mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak instalatzea Abanto-Zierbena Udalaren ardurapean egongo da ia erabat.

Obren kopuruari dagokionez, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 287.202,94 euro ingurukoa izango da (BEZ barne), eta honela ordainduko da:

**Ur Partzuergoak,** obrak finantzatzeko, Ur Partzuergoaren beraren jardunaren ondorioz kaltetutako puntuetan zoladura egokitzeko obren balorazioari dagokion kopurua ordainduko du, baita mando bizkar izeneko "RVLA" abiadura murriztaileen sei ale instalatzea ere, Enkarterri I. Fasearen obren eragina pairatu zuen Galdamesa bide berdeko tartean. **Obra horiek, proiektu fasean, 180.000,00 eurotan baloratu ziren.** Horrek lizitazioaren proiektuaren kopuruaren %62,67 esan nahi du.

**Abanto-Zierbenako Udalak** gainerako kopuruak ordainduko ditu, hau da, Ur Partzuergoaren lanek kalterik eragin ez duten puntuetan zoladura egokitzeari dagozkionak, baita mando bizkar izeneko abiadura murriztaileak instalatzea ere, horietatik eratorritako jarduketa oro barne. **Obra hauek proiektu fasean 107.202,94 eurotan aurreikusi dira.** Horrek lizitazio proiektuaren kopuruaren %37,33 esan nahi du.

Jarduketen titulartasuna zein birjartze eta mantentze lanetarako betebeharra Abanto-Zierbena Udalarena da erabat; Ur

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras será compartida dependiendo de la funcionalidad de las mismas, siendo de cuenta del Ayuntamiento de Abanto Zierbena las correspondientes a zona Las Carreras, zona Gallarta, zona Cotorrio-Putxeta, zona Sanfuentes, zona Triano - Las Calizas, contemplado en el Proyecto y correspondiendo al Consorcio de Aguas las destinadas a la readecuación de las zonas de firme de viales ubicados en María Auxiliadora - Las Carreras, en Bº Cotorrio-Putxeta, en la Vía Verde Galdamesa tramo La Balastera. La instalación de RVLA corresponderá casi la totalidad, al Ayuntamiento de Abanto Zierbena.

El importe de las obras, cuyo presupuesto base de licitación ascenderá aproximadamente a 287.202,94 euros (IVA incluido), será abonado de la siguiente forma.

**El Consorcio de Aguas abonará** para la financiación de las obras el importe correspondiente a la valoración de las obras de adecuación de la pavimentación en los puntos en que ésta ha resultado dañada por actuaciones de este Consorcio de Aguas y también la instalación de seis reductores de velocidad "RVLA" en el tramo de Vía Verde Galdamesa que fue afectado por el acceso de las obras de las Encartacioens Fase I. **Estas obras se valoran en fase de proyecto en 180.000,00 €.** Esto supone un 62,67% del importe proyecto de licitación.

**El Ayuntamiento de Abanto Zierbena, realizará el abono** de las cantidades restantes, esto es lo correspondiente a la adecuación de la pavimentación en los puntos en que las obras promovidas por el Consorcio de Aguas no han causado daños, así como la instalación de elementos reductores de velocidad "RVLA", incluyendo cuantas actuciones derivadas de la ejecución de las mismas sean correspondientes. **Estas obras se valoran en fase de proyecto en 107.202,94 €** Esto supone un 37,33% del importe proyecto de licitación

Que la titularidad de las actuaciones, así como la obligación de mantenimiento y reposición correspondera integramente al

Partzuergoak ez du horren gaineko erantzukizunik hartuko.

Ayuntamiento de Abanto Zierbena, no adquiriendo el Consorcio de Aguas ninguna responsablilidad a tal respecto.

Halaber, **hitzarmen honen xede diren lanak egikaritzeko beharrezkoak diren lursailen besterentzeei eta Obren Zuzendaritzari dagokien kostua Abanto-Zierbenako Udalak ordainduko du.**

Asimismo, el coste correspondiente a las **expropiaciones de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras como al a Dirección de las Obras objeto del presente Convenio, será de abono integro por el Ayuntamiento de Abanto Zierbena**.

Hori guztia ikusita, hitzarmenean esku hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin beharko dituzte nork bere gain hartutako betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

**ZAZPIGARRENA.- EKARPENEN ORDAINKETA**

**SÉPTIMA.- ABONO DE LAS APORTACIONES**

Hitzarmen honetako administrazio bakoitzak obran duen partaidetza kuotak kalkulatzeko kontuan hartuko da obren balorazioa, azalpen ataleko laugarren oinarriarekin eta zazpigarren klausularekin bat etorriz alde bakoitzak egikaritu eta ordaindu beharko duena, lanak lizitatzeko aurrekontuaren arabera zehaztuko direnak.

La cuota de participación de cada administración en la totalidad de las obras recogidas en este convenio será la resultante de la valoración de las obras que, conforme al apartado cuarto de las exposiciónes y a la clausula séptima, corresponda ejecutar y abonar a cada interviniente, siendo determinada en base al presupuesto de licitación de los trabajos

Obrak adjudikatu ondoren, partaidetza kuotak ez dira aldatuko, eta aldez aurretik ezarritakoak errespetatuko dira.

Una vez adjudicada las obras las cuotas de participación permanecerán invariantes, respetándose las establecidas previamente.

Hau da, Ur Partzuergoa %62,67, eta Abanto-Zierbenako Udalak %37,33.

Esto es Consorcio de Aguas 62,67% y Ayuntamiento de Abanto Zierbena 37,33%

Obren Zuzendaritzak kasuan kasuko balorazio loturak eman beharko ditu hilero lanak egiten diren bitartean.

La Dirección de las Obras deberá emitir las relaciones valoradas corresponientes de forma mensual durante la ejecución de los trabajos.

Abanto-Zierbenako Udalak ziurtagiriak izapidetu eta eman beharko ditu hilero.

El Ayuntamitento de Abanto y Zierbena deberá tramitar y emitir las certificaciones correspondientes de forma mensual.

Abanto-Zierbenako Udalak emandako ziurtagiri bakoitzaren kopia igorri beharko du Ur Partzuergora.

El Ayuntamiento de Abanto Zierbena deberá remitir al Consorcio de Aguas copia de cada certificación emitida.

Ur Partzuergoak Abanto-Zierbenako Udalari ordainduko dio ziurtagiri bakoitzari dagokion

El Consorcio de Aguas abonará al Ayuntamiento de Abanto Zierbena. la parte

zatia, ezarritako obraren partaidetza kuotan oinarrituz.

correspondiente de cada certificación en base a la cuota de participación en las obras establecida.

Ziurtagiriak adjudikatutako obra guztiaren gainetik emanez gero, azken ziurtagiriaren, prezioak berrikustearen, proiektu aldatuak prestatzearen edo gerta daitezkeen bestelako egoeren ondorioz; **Ur Partzuergoaren ekarpena mugatuta egongo da, hain zuzen ere obren adjudikazio kopuruari Ur Partzuergoaren ardurapeko lanei dagokien partaidetza kuota aplikatzearen ondoriozko emaitzak mugatuko du ekarpena..**

En caso de producirse certificaciones por encima del total de obra adjudicada, consecuencia de certificación final, revisión de precios, elaboración de proyectos modificados o otras situaciones que pudiran darse; **la aportación de Consorcio de Aguas estara limitada al importe resultante de aplicar sobre el importe de adjudicación de las obras la cuota de participación correspondiente a los trabajos responsabilidad del Consorcio de Aguas.**

**ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonek osatuko dute: Udaleko bi ordezkarik eta Partzuergoko beste bik.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.

**OCTAVA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del Ayunamiento y dos por parte del Consorcio.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA**

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta esku-hartzaileak behartuko ditu sinatzen denetik aurrera eta obrak amaitu ostean Ur Partzuergoak ordainketa egiten duen arte.

**NOVENA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice el último pago del Consorcio de Aguas una vez finalizadas las obras.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo ebazpen bidez iraungiko da.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmenaren betearazpen zorrotza edota ebazpena eskatu ahal izango ditu.

Ebazpenaren kasuan, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

**DECIMA.- EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Maite Etxebarria Azpiolea
**Abanto-Zierbena Udaleko alkate-udalburua**
Acaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Abanto-Zierbena

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Kepa Odriozola Azula
**Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea**
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia